

BEAR ZANA PILOTALEKUAREN ERABILERA DELA ETA

Azken egun hauetan, Villabonako Bear Zana pilotalekuaren erabilera dela eta, hainbat ohar, erabaki, zein iritzi irakurri ahal izan dugu.

Pilotalekuaren erabiltzaile nagusia Behar Zana Pilota Taldea denez, ziprztinduak sentitu gara eta gai honen inguruan gure iritzia azalduz ohar hau plazarazi nahi dugu:

Bear Zana pilotalekua eraiki zen 2009. urtetetik, herriko elkarte zein norbanakoek Villabonako udaletxean berau erabiltzeko eskaera egin dutenean, **inoiz ez dugu inolako trabarik jarri.**

Beti moldatu behar izan gara pilotalekua erresebatu dutenean, batzuetan kalte handia jasan izan dugun arren. Eskaera batzuek traba handia egin izan digutenean, noski azaldu dugula gure haserrea, egunerokotasuneko martxari talka egin eta inolako b planik gabe geratu garenean. Hala ere, ekintzak burutu dira eta gu egoera guztietara moldatu gara.

Hala ere, eta orain arte bezala, pilotalekuaren erabiltzaile nagusia Behar Zana Pilota taldea izan behar duela pentsatzen dugu. Pilota eskolaren ekintzak aurrera eramateko ezinbesteko eraikuntzak ditugu bai Bear Zana zein Amasako pilotalekuak eta Errebote plaza.

Hala ere, jakin badakigu Bear Zana herriko eraikin publikoa dela eta estalia den gutxienetakoa. Horregatik, **gutziz onartu, errespetatzen eta errespetatuko dugu edozein norbanako edo elkartek, beren ekintzak aurrera eraman ahal izateko pilotalekuaren eskaria egin dutenean.**

Guk, eskari guzti horiek izan direnean, gauza bakarra eskatu dugu: pilotalekua txukun utzi eta zaintzea.

Behar Zana Pilota taldekoon egunerokotasunean, arazoa ez da herriko elkarte edo norbanakoek urtean zehar antolatzen dituzten ekintzak.

Arazo nagusiak eta udalean burutu ditugun eskariak hauek dira laburbildurik:

- Bear Zana pilotalekuaren garbiketa ez da egokia. Dena den, jakin badakigu arazo hau konpontzeko lanetan daudela. Ordea, gaurdaino eta egunero-egunero pilotalekua oso zikin egoten da.
- Herriko haur, gazte zein helduk pilotalekua oso zikin uzten dute. Hezkuntza arazo larria dagoela uste dugu.
- Pilotalekuaren zaintza eta garbitasuna eskatzen dugu. Eta edozein elkartek erabiltzen dutenean berdin, hau da, erabiltzen duenak, berriro dena txukun uztea besterik ez dugu eskatzen. Berdin kantxa, aldagelak zein almazena.

Honetaz guztiaz gain, **Udalak arazoaren muinari heldu behar dio: zikinkeriarri. Eta honekin batera, udalak berak zein beste edonork antolatzen diren ekintzen ondorengo garbitasuna bermatzeko prebisioak egin behar ditu eta garbiketak erreforzatu.**

Besterik gabe,

